Artzape
getariarron topagunea

2019ko abendua

198. zbk

GETARIA GERTURATZEKO APLIKAZIOA

UXUE ALBERDI, "KONTRAKO EZTARRITIK"

Astillero
ANTONIA IRIBAR
Erretegia
Parrillan espezialitatea
Kaia, 1
20808 GETARIA
Tel.: 943 14 04 12

barne diseinua interiorismo
Garbiñe Ibarbia Gamboa
Colegiado Nº 5158/158
- Proiektuak eta erreformak
- Obra-zuzendaria
- Obra-eta jarduera-baimenak
- Gremio koordinaketa
Kristobal Balentziaga, 7 - Getaria - Tel. 685 75 18 21 garbi.ibarbia@hotmail.es

Katrapona 4
Tel. 943 140 409
info@katrapona.com
www.katrapona.com
KATRAPONA

GIROA TABERNA
·Plater konbinatuak
·Bokatak
·Pintxo goxoen aukera
Kale Nagusia, 24 - GETARIA - Tel.:943 140 800

portu
nagusia 12
20808 getaria
943140285

MAISOR
Kantauriko esperientzia
OBRADOREA eta DENDA
Tel. +34 943 140 993
www.maisor.com
GETARIA
ANTXOA | ANTXOA OZPINETAN | HEGALUZEA | BERDELA | MENTREZKA | SARDINTXOAK

PINTXO GOXOAK
ITSASKIAK DASTATZEKO EDO ERAMATEKO
GETAKA
GETARIAKO PRODUITS EXPRESSION
KALE NAGUSIA 35. GETARIA - TEL.: 943 02 16 13
WWW.GETARIAEXPERIENCE.COM
WWW.GETAKA.ES

K
KAIA KAIPE
JATETXEA RESTAURANTE
Arnao generala, 4 20808 Getaria // 943 14 05 00 // www.kaia-kaipe.com

Eugenio Uranga
Aseguru Artekaria
Herrerieta, 12
20808 GETARIA
Tel.: 943 140 120
Mobila: 652 775 061
E-posta: euranga@getaia.com

SALANORT
MAESTROS CONSERVEROS
KALE NAGUSIA 22
GETARIA
943 14 06 24
tienda.getaria@salanort.com
Síguenos en FACEBOOK
www.salanort.com

8-9 Erreportajea: Getaria Gertu aplikazioa

14-17 Erreportajea: euskara mundu biran

4	Iritzia: Aitor Irigoien
5	Artzapetik begira: Ximon Aranguren
6	Salberak Itsaskabrari
8-11	Elkarrizketa: Uxue Alberdi
12-13	Erreportajea: Getaria Gertu aplikazioa
14-16	Erreportajea: euskara eta mundu bira
17	Klik batean
18	Elan Euskadi
19	Historiaren katebegiak
20	Eskubide Sozialen Karta
21	urpekHARIAK
22	Harritarten txutxupeka
23	Urritza Aisialdi Taldea
24	Komikia
25	Getariako hitza eta Txikiegia agian
26	Agenda

2019ko abendua 198. zbk

Artzape
getariarron topagunea

[Argitaratzailea] Artzape Euskara Elkartea
[Egoitza] Krixketaneko Iturrigaina 1 - Eskualtxeta Kulturgunea
[Kontaktua] 943 000 548 / artzape@topagunea.com
[Erredakzioa] Iure Eizagirre eta Intza Gurrutxaga.
[Lan taldea] Aritz Iribar, Eider Iribar, Izaro Uzin, Jon Ander de la Hoz, Josune Urresti, Nerea Kamio eta Joseba Fuentes.
[Kolaboratzaileak] Aitor Irigoien, Amaia Irazabal, Andres Alberdi, Beñat Gereka, Edurne Irigoien, Elan Euskadi GKE, Ereiten Kultur Zerbitzuak, Getariako Eskubide Sozialen Karta, Getariako Udal Liburutegia, Goiatz Lazkano, Iturzaeta Herri Eskola, Jon Ander de la Hoz, Joxi Erauskin, Kepa Iribar, Markos Aizpuru, Mikel Mugika, Saioa Martinez de Lahidalga, Urritza Aisialdi Taldea, Uxoa Irigoien, Xabi Insausti, Ximon Aranguren eta Zigor Saizar.
[Diseinua] Aritz Paredes eta Xabier Isasti.
[Inprimategia] Gertu (Oñati)
[Tirada] 365 ale
[Lege gordailua] SS-504/01
[ISSN] 1578-469X

ARTZAPE ALDIZKARIAk ez ditu bere gain hartzen aldizkarian argitaratzen diren iritziak.

GETARIAKO UDALAK, FORU ALDUNDIAk eta EUSKO JAURLARITZAk diruz lagundutako aldizkaria.

Getariako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

AITOR IRIGOIEN

Estatu (totalitario) baten azken notak

Mikel Laboaren *Martxa baten lehen notak* abesti ezagunarekin oroitu naiz, berriro, aurtengo urrian. Baduelako tristezia eta goibel ukitu nabarmen bat, baina baita indar eta energia dosi handia ere. Horregatik, Katalunian aurtengo urrian —beste behin— gertatu denaren soinu banda izan daitekeela iruditzen zait.

Oso larriak eta gogorrak baitira Espainiako estatuak Katalunian erakutsi duen jarrera zein egin dituen gehiegikeriak. Edozein beldurtzeko modukoa eta muga denak gainditzen dituena, batzuk jada halako gauzetara ohitu direla edo estatuaren erantzuna justifikatu nahi dutela ematen duen arren. Izugarri asaldatzen nau azken horrek, inolaz ere ezin baita normaltzat hartu Espainiako indar desberdinek —polizialak, judizialak...— egindakoa.

Hasteko, urte luzetan estatuak hainbestetan errepikatutako gezurra ebidentzian geratu da. Hamaika aldiz esaten zuten indarkeriarik gabe denari buruz hitz egin eta erabaki ahalko zela... Errealitateak kontrakoa erakutsi du: Espainiaren baitan, iritzia eman eta erabaki nahi izateagatik ordaindu beharreko prezioa errepresioa, kartzela edota erbestea dira. Eskozian edo Quebec-en normaltasunez, errespetuz, posible dena, hots, galdeketa bat antolatu eta herritarrek erabakitzea, Espainian delitu larria da, arazo nazionala.

Zergatik, ordea? Zer dela-eta hainbesteko beldurra oinarrizko eskubide demokratiko bati? Azken hilabeteotan asko aipatu da komunikabideetan diktadorearen hezurren lekualdatzea. Pertsonalki, ez zait iruditzen gakoa iraganeko hezurren lurperatze lekua denik, iragan frankistaren DNAk Espainiako estatuan eta agintean indartsu jarraitzea baizik. Hezurrak tokiz mugituta ez da ezer aurreratzen, praktikan haren ondorengoek jarraitzen badute gobernuan, justizia egituretan, polizia-etxeetan edota enpresa nagusietan.

Izan ere, arazoa ez da Katalunia, ezta antolatu zuten erreferenduma ere. Arazoa ez da Puigdemont, ezta Junqueras ere, ez eta CDRak edota Tsunamia... Kataluniar herriak egin duen "delitu" bakarra izan da bere etorkizunari buruz modu baketsuan eta demokratikoan erabaki nahi izatea. Benetan arazoa duena Espainiako estatua da, bertako demokrazia gabezia eta 78ko erregimenaren betikotzea. Estatutik guztioi bidaltzen zaigun mezua argia da: kontuz estatu interesak ukitzen dituenarekin, horren ondorioak latzak izango baitira.

Beste aldean, kataluniar gizarteak argi erakutsi du alderdi politikoen gainetik eta aurretik dagoela, alderdiei ere mezu garbia helaraziz: herriaren interesak alderdienaren gainetik jartzeko garaia da, bere etorkizuna erabaki nahi duen herri bat dago, eta horretarako eseri eta hitz egin behar da. Zein izan da estatuaren erantzuna? Eskaintza? Poliziaren indarkeria basatia manifestari baketsuen aurka, epaiketa politikoak, kartzela zigorrak, erbestea, 155. artikulua.

Horixe da Espainiako estatua, non bere burua ezkerrekotzat duen alderdi bateko buruak ere egoera konpontzeko erreferendumak debekatzea planteatzen duen. Hori da errealitatea. Eta Espainiako estatua ez da aldatuko: banderak, nortasun agiriak eta hizkuntzak inposatzen dituen estatu bat, militarren desfileak indar erakusle gisa dituena, printzipio demokratikoak urratzen dituena, eta horretaz harro agertzen dena gainera.

Eurei agian indar, sendotasun erakusle iruditzen zaie hori; errealitatean, ahultasun sakon baten zantzuak dira, oinarri eta etorkizunik ez duen estatu baten isla, demokratatzat hartzea kosta egiten dena, edozein arazoren aurrean erakusten duen jarrera totalitarioa, autoritarioa medio. Gatazka politikoak konpontzeko poliziaren indarkeriaz eta epaitegi partzialez gain beste errezetarik ez duena. Indarkeria hori dena, azken finean, estatu (totalitario) baten azken noten erakusle da. Mina ematen duten notak, burrunba askokoak, agian horregatik, baina azken notak...

Hori bai, Mikel Laboaren lagun zen Lluis Llachek abesten zuen moduan, denok tiraz soilik eroriko da estatu totalitario hori. Ezin gara Kataluniara begiratzera soilik mugatu, Euskal Herrian ere gure etorkizuna erabakitzeko prozesuak martxan jartzeko eta mugitzeko ordua da. Herritarron ordua, baita alderdiek euren hitza betetzekoa ere.

XIMON ARANGUREN

Badoaz infrasoinuak!

Oharra: *testu hau Berri Txarrak taldearen azken kontzertua baino egun batzuk lehenago idatzi da.*

Ondo *plajiatzeko metodoaren azalpen laburra, eta adibide bat* da Bernardo Atxagaren *Obabakoak* laneko ipuinetako bat. Bertan, idazleak plagiatzeko hiru arau bete behar direla dio:

- Lehenengo araua: argumentu garbiko testuak aukeratu behar dira.
- Bigarren araua: bere hizkuntzara itzuli gabe dagoen liburu arrarorik ez da aukeratuko.
- Hirugarren araua: ipuinek nonbait eta noizbait gertatutako istorioak kontatzen dituzte, bada, ereduaren bi xehetasun horiek aldatu behar dira.

Berri Txarrak agurtzeko, Jon Maiak Arnaldo Otegiren omenaldian emandako hitzaldia baliatuko dut. Finean, plagio bat, gure hizkuntzan sortutako testu bat, argumentu garbikoa eta nonbait eta noizbait desberdinak dituena.

"Aske izan gara gure kaiola erraldoi honetan azken 25 urte hauetan, musika zuen ohetik aditzen, mundua zuen ohetik ikusten. Jendez gainezka egon da zuen musikaren kalea, baina, orain, zaldia zauritu eta taldeak agur eta ikusi arte esan digu. Iragana ez da inoiz ezabatua izango, orainean biziraungo dugu, eta artean gertatuak, etorkizunean norbaitek oroituko ditu ahanzturaren zingiran. Herriak bakarrik salbatzen duela herria erakutsi diguzue, euskararekin mundua desafiatuz eta artalde zurian ardibeltz izatea txarra ez dela erakutsiz. Gaur atzo baino gehiago dakigu, eta bihar baino gutxiago, baina ikasi dugu denbora dela poligrafo bakarra eta ikasi dugu honetarako jaio zinetela eta honengatik hil zaretela. Ez da soilik agur bat, zuen lemak eta aingurak gugan geratuko baitira. Beraz, garai batean kristauentzat katedral bat zena izan bedi Navarra Arena euskal musikazaleentzat. Ez dadila haria eten, ez dadila inoiz haria eten".

Testu honen bidez eskerrak eman nahi dizkiot Berri Txarrak taldeari euskal musikari egindako ekarpenengatik. Agur eta ohore!!!

JON ANDER DE LA HOZ

Ikusi arte, XP10

Azaroak 23 zapatua, goizeko 07:33. Euria leihoan gogor jotzen, haize ufada bortitzak kanpoan. Kafea (italiar erara) berotu, eta ordenagailua piztu. Sarri askoko errutina: *Zer bota behar zioat nik orain Zigorri?*

Turn on irratiari: "Bart eskaini du Berri Txarrakek bere ibilbideari amaiera emango dion asteburuko lehen kontzertua". *Hara, egia*, neurekiko. Kuadrilakoren bat ikusi nian ostiralean desordutan saltoka, gero Navarra Arenara joan behar zuela-eta (bide batez, sasoiko zagok Ezkurdia). Ziur jarri duela argazkiren bat sarean.

Instagram. Zenbat istorio han: %90n, Urbizuren bizarrak. Pentsamendu bakarra: *Hau ere zalea da; hura ere bai?*. Harritu naik, aixkiria, zenbat lagunek azaldu duten beren maitasuna bat-batean. Ep, ez nauk ni izango hori zalantzan jarriko duena. Ezagutzen dizkiat nik ere Berri Txarraken zale porrokatuak; bi egunetarako modua egin diatenak, eta sarrerarik gabe geratu direnak ere bai. Baita kontzertura zinera doanaren gisan joan direnak ere, zer aurkituko. Ondo zagok hori.

Hara non, baina, ohartu ninduan bazela Berri Txarraki buruz urteetan izugarriak botatzen jardun eta gero *Ikusi arte* eta bihotz batekin argazkika aritu zenik —ez dadila inor asalda, ez nauk getariar batez ari—. Nire ustez hitz bat dik horrek atzean: *postureoa*. *Ikusi Arte* girako azken kontzertu horietako batean egon izanak estatus bat eman dik azken asteetan. Eta egun garesti saltzen dek hori.

Alabaina, Zigor, jakin nahiko nikek azken orduko zenbat *Xabiprietista* zeuden kontzertu haietan. Realeko jokalari harekin egin zutenaren moduan egin dutenak: ordurik baxuenetan etenik gabe egurtu, eta agurreko egunean zutik jarri, txaloka, eta *eskerrik asko* zioen karteltxoa buru gainetik altxa. Ikusi arte.

ZIGOR SAIZAR

Sekulaberdiko kantaria

"Egun da abenduaren lehena/bi mila eta zortzikoa/gauza ttikien erresumatik/partitu da maisua", Ruper Ordorika.

Lekeitioak entseatzen ari hituen. Komunikazioa-inkomunikazioa. Atzean Juan Sebastian Bach-en pasioa eta Mikel, bere hizkuntza partikularrean, *komunikatzen*, inork ulertuko ez zizkian esaldiekin. Abestiaren bukaeran Iñaki Salvador bere piano jotzaile banaezin eta lagun kuttunari begiratu eta esan zioan: "*Iñaki, nos van a dar de hostias*".

Arrazoi zian, kontzertuetara joaten gintuan eroak kenduta, euskal kantari *perfumatuak* nahiago zizkian jendeak: ea indioz (txerokieraz edo) abesten zuen, zein zoroetxetik atera zen, nori bururatzen zaion *Yesterday* bere erara kantatzea, zein ostras zen Atawalpa Yupanki... Horrelako perlak entzuten genizkian, Jonan, Mikelen zale fidelok.

X itxurako egurrezko aulkietan esertzen gintuan; berak ere halako bat izaten zian oholtzan, hanka bertan jarri eta gitarra izterrean pausatzeko. Lizardi, *Rinbaud etorri duk hitaz galdezka* tangoa abestean, batetik bestera mugitzen huen, dantza argentinarraren pausoak eginez eta kable imaginarioa salto txiki batez gainditzuz. Amaieran, bisetan, "*Izarren Hautsa*" marrua egiten zian nirekin joandakoak.

Abenduaren lehen egunean, duela 11 urte joan huen viking begi urdina (Atxagak *Viking* poeman esan bezala); ordutik Laboaren zaleak perretxiko begiurdinak bezala atera dituk Iratiko basoan. "*Txoria txori* kantak euskaldunon ereserkia beharko likek", "joe, ze sakontasun bere letrek", "beti izan nauk Laboa zale", "ingelesez abestu izan balu, Bob Dylan baino hobea hukek"... Hik aipatutako *postureoaren* espeziekoak dituk, Jonan, Ken Zazpiren bidez *Izarren Hautsa* entzutean, letra nahiz kanta Xabier Leterena eta abestirik ezagunena Laboarena dela ez dakitenak. Hori bai, Laboa artista euskaldun mitikoa dela esango dute.

"*Iñaki, nos van a dar de hostias*"... Segi dezatela egurra ematen.

IRIZABAL,S.A.
ARRAINAK

IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-20090981

azkuelek

Araba kalea, 41 ZARAUTZ
(Maxi Eroski ondoan)
943-13 04 33 - 619 523 539
azkuelek.com

ETXEKO BERRIKUNTZAK · TELEKOMUNIKAZIOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK · ARGIZTAPENA · DEKORAZIOA · KONPONKETAK · ANTENAK

TXUKUN LORAZANTZA, S.L.
Lorezaintza, mendiko lanak, indusketak, itxiturak...

660 332 756 - 679 428851
txukunlorazantza@hotmail.com

Taberna
Mayflower
Erretegia
katrapona, 4
Tel.: 943 14 06 58 GETARIA

TXOKO
Getaria
txokogetaria.com
Tlf: 943 140 539

PUBLIZITATE TARIFAK

TAMAINAK	ZENBATEKOA
4,3 x 4	*12 euro*
9 x 4	*24 euro*
13,6 x 4	*36 euro*
9 x 8	*48 euro*
13,6 x 8	*72 euro*
orri erdia	*96 euro*

Urte osoan jartzen dutenei %10eko deskontua egingo zaie.

UXUE ALBERDI

"AZALTZEN DUT 22 MEKANISMOTAN NOLA ERAIKITZEN DEN EMAKUME BAT"

"Kontrako eztarritik", izenburu horrexekin argitaratu du Uxue Alberdik bere azken lana; agian, bati baino gehiagori, esandakoak irenstea kostatuko zaiolako? Aurkezpen handiegirik behar ez duen emakumea da Alberdi, izan ere, gehienok ezagutzen dugu, gutxiago edo gehiago, izan bertsolari, kazetari edota idazle modura. Izatez elgoibartarra, duela urte batzuetatik bizi da Getarian. Azken urteetan, Euskal Herriko oholtza ugari zapaldu ditu bertsotan, baita orri zuri ugari bete ere liburu eta lanetan.

TESTUA
INTZA GURRUTXAGA

ARGAZKIAK
IURE EIZAGIRRE

Hasteko, nola aurkeztu behar zaitugu: kazetari, idazle, bertsolari...?
Ez daukat neure burua kazetaritzat. Kazetaritza ikasi nuen, asko gustatzen zait, noizean behin egiten ditut kazetari lanak, baina itzultzaile lanak egiten ditudan bezala. Hala ere, ofizioz ez naiz ez itzultzailea ez kazetaria. Badira dozena bat urte ofizioz idazlea eta bertsolaria naizela.

Idazle gisa egindako azken lana da "Kontrako eztarritik" saiakera, nondik dator asmoa?
Liburuaren ernamuina Udako Euskal Unibertsitateak iazko ekainean antolatu zuen *Bertsolaritza genero ikuspegitik* ikastaroan kokatuko nuke. Hitzaldi bat eskatu, eta gaia libre eman zidaten.

Garai hartan buruan nebilkien autoritatea bertso munduan gaia; nola eraikitzen eta deseraikitzen den autoritatea baina testutik kanpo. Iruditzen zait, askotan, bertsolaritzaz hitz egitean, testura mugatzen garela. Jakina da badaukala hortik, baina, bai nire bizipenetatik bai bertsokideenetatik, konturatzen nintzen gure zailtasunak, askotan, ez zetozela testu egokia sortu ezinetik, ideia egokiarekin eman ezinetik edo teknika faltagatik, baizik posizioa aurkitu ezinetik. Ez genuela topatzen nondik eta nora kantatu. Ondorioz, autoritatea ez dela eraikitzen bertsolariak ahoa zabaltzen duen momentuan, askoz ere lehenago hasten dira gorputzak autorizatuagoak edota desautorizatuagoak izaten, eta hor hamaika motibo daude, tartean genero motiboak ere bai.

Pentsatu nuen askoz aberatsagoa izango zela nire esperientzian bakarrik oinarritu beharrean, kideei beraien bizipenez ere galdetzea.

Uxue Alberdi.

"Kontua da ulertzea funtzionatzen duen sistema bat dagoela, eta botere desorekan eraikitzen gaituela"

Uxue Alberdi, erdian, *Kontrako eztarritik* liburuaren aurkezpenean, hainbat bertsolarirekin. /Arg.: bertsoa.eus

Lehenengo, galdera bakarra egin nien hamabost bertsolariri: "Emakume bezala irakurria izateak eragin al dizu, eta eragin baldin badizu, nola, bertsotan egiterako orduan, bertsotarako mugimendu marjinean?". Ondoren, liburua buruan nuela eta hitzaldia pasatuta, elkarrizketa sakonagoak egin nizkien.

Zer jaso duzu, orduan, saiakeran?
Funtsean, 22 mekanismotan nola eraikitzen den emakume bat. Liburuaren tesia da badagoela sistema bat zeinak sortzen eta birsortzen dituen emakumeak eta gizonak, kategoria sozial modura, eta horiek desberdinkeriazko botere harreman batean daudela oinarrituta. Eguneroko gertakizun txikien bitartez, hori nola gertatzen den azaltzen da.

Adin desberdinetako bertsolariak elkarrizketatu dituzu, beraien testigantzetan alderik nabaritu al duzu?
Nik uste diferentzia nabarmenena kontzientzia dela. Egungo gazteek, oso gaztetatik jada, badaukate kontzientzia bat, feminismoaz irakurri, pentsatu, eztabaidatu dute eta gai dira, askotan, gertatzen zaien hori politizatzeko. Baina, aldi berean, horma beren kontra jotzen dutela ikusten da. Lurzorua oso gutxi aldatu dela esango nuke. Gaur egun ere, oraindik, emakume bertsolari izatea gizonezko bertsolari izatea baino askoz zailagoa da. Ez bertsotan bakarrik, orokorrean.

Identifikatu dituzun 22 mekanismo horiek nola laburbilduko zenituzke? Edo baten bat nabarmenduko al zenuke?
Ez nuke bakar bat ere nabarmenduko. Hain zuzen,

hori izan da helburua. Liburuan kontatzen dira askotan ikusi ere egiten ez ditugun biolentzia mota batzuk, oso naturalizatuta dauzkagunak, eta beste muturrean, denok bortxaketatzat identifikatuko genituzkeenak. Liburuan, Danele Sarriugarteren hitzak erabiliz esaten dudan bezala, "olagarro beraren beso desberdinak dira". Sistema beragatik gertatzen da dena. Orduan, helburua izan da argazki bat atera eta esatea ezin direla bereizi. Kontua da ulertzea edo sinestea funtzionatzen duen sistema bat dagoela eta modu desberdinean, botere desorekan, eraikitzen gaituela. Erabaki behar dugu zerbait egin nahi dugun hau aldatzeko edo ez.

Behin baino gehiagotan aipatu duzu bertsolaritzako gizonezkoen isiltasuna honen inguruan, zein esanahi eta ondorio ditu horrek?
Isiltasunarena aipatu izan dut, baina ez da esklusiboki bertsolaritza munduko zerbait. Askotan gertatzen den zerbait da emakumeren batek edo batzuek zapalduak sentitu izan direlako protesta egin eta inguruko gizonak isilik geratzea, arazoak beraiekin zerikusirik ez baleuka bezala.

Asko hitz egiten dugu ahizpatasunaz, emakumeen artean sortzen ditugun sareez eta gure arteko artikulazioaz, baina oso gutxi hitz egiten da anaidiaz. Ez ditugu ikusten gizonek zenbat mekanismo dauzkaten euren artean elkar babesteko eta euren gizontasuna, hau da, euren posizioa gizartean babesteko. Horietako bat da, adibidez, elkar ez salatzea.

Pilar Mendibil mugimendu feministako kideak "Argia" aldizkarian aipatu du liburuak, bertsolaritzaz harago, "ederki" balioko lukeela munduaz hitz egiteko.
Bai, asmoa hori zen. Heburuetako bat bada, jakina, bertso munduari beste leku batetik begiratzea eta esatea beti denok ez gaudela eroso, eta agian, beste definizio batzuk ere behar dituela bertsolaritzak. Baina beste alde batetik, xedea zen, eta horregatik erabili ditut hainbat garai eta lekutako teoria feministak, adieraztea hau ez zaigula guri bakarrik gertatzen. Bertsolaritzan ez gaude beste inon baino okerrago, eta, akaso, honetaz hitz egiten hasita egotea sintoma on bat ere izan liteke. Helburua izan da patroi batzuk identifikatzea eta plantilla bat sortzea beste leku zein arlo batzuetan ere erabilgarri izan daitekeena.

Idazlea izateaz gain bistan da irakurzalea ere bazarela, besteak beste, Getariako Katukale irakurle taldeko dinamizatzailea baitzara. Zein profiletako jendea dago irakurle taldean?
Denetarik, era guztietako irakurzaleak. Batzuk badira profil akademikoagoa dutenak eta asko irakurri dutenak, beste batzuk asko irakurri izan dutenak baina gazteleraz, eta apuntatu direnak euskaraz trebatu nahi dutelako. Nik hiru irakurle talde gidatzen ditut, Zumaiakoa, Lasarte-Oriakoa eta Getariakoa, eta talde bakoitza mundu bat da (barre artean).

Getarian, normalean, hamar bat lagun biltzen gara, baina ateak irekita daude. Ez dago beti etortzeko konpromisorik. Ez dago liburua irakurrita etorri beharrik ere, normalean bai, eta komeni da taldearen zati handi batek irakurrita izatea, zeren gainean komentatu edukitzeko. Askotan,

"Iruditzen zait herrian ez dagoela nahiko masa kritiko deseroso sentitzen dena honekin", Elkanoren mundu biraz

alderantzizko prozesua izaten da, hona etorri eta eztabaidak berak animatzea irakurtzera.

Getarian irakurzaletasunik badela esango zenuke?
Getaria beste herriekin konparatzeko daturik ez daukat, baina ez nuke esango beste herritean baino gutxiago edo gehiago irakurtzen denik. Nik nahi baino gutxiago irakurtzen da leku guztietan. Niretzako pasio bat da, asko asko eman didana txiki-txikitatik eta ematen jarraitzen didana.

Normalean literatura ez dago futbola bezain hedatua, tabernan astearte arratsalde batean literaturaz hitz egiten bi lagun topatzea ez da hain ohikoa izaten. Irakurle taldeek hori eskaintzen dute: zure afizio antzekoak eduki ditzaketen beste pertsona batzuk ezagutzea, eta herrian, txoko desberdinetan eta asmo intelektual handiegirik gabe, literaturaz hitz egitea.

Egun eta etorkizunean nola ikusten duzu irakurzaletasuna? Eta euskal kultura orokorrean?
Ez zaio inongo garrantzirik ematen. Askotan hitz egiten dugu modernitateaz zein herri moderno bat izateaz, eta nazio izateaz; baina kultura sendorik gabeko naziorik ez dago. Nazio bat eta estatu bat hizkuntza batean oinarritzen dira.

Euskarazko kultura ez da kontuan hartzen. Oso oso gutxituta dago eta ez dugu euskalduntze masibo bat lortu. Jende asko ez da konpetentea euskaraz, ez dauka adierazkortasun nahikorik euskarazko literatura disfrutatzeko. Konplexu handiak dauzkagu eta, adibidez, euskarazko filmak edota bikoizketak artifizialak egiten zaizkigu, gaztelaniazkoak, berriz, irentsi egiten ditugu eta

Alberdi, Katukale Irakurle Taldearen bilgunean, liburutegian.

ez gara konturatzen naturalak egiten zaizkigula txiki-txikitatik inbutu batekin sartu dizkigutelako. Borroka egiten jarraitu behar dugu prestigioa emateko gure kulturari, gure arteari, gure artistei…, ez pasatu behar izateko beti Espainiaren edo Frantziaren homologaziotik.

Azken hilabeteotan, asko ari gara aipatzen Elkanoren mundu bira. Elkanori Bira manifestuari atxikimendua eman zenion zuk, zein iritzi duzu gaiaz?
Elkanorekin egiten ari direnarekin oso kritikoa naiz. Batetik iruditzen zait iraganaren irakurketa historikoa dagoela eta hor zulo beltz asko daudela. Hau da, datuak falta dira, edota daudenekin egin daiteke irakurketa bat edo kontrakoa.

Niretzako hor giltza da zertarako nahi dugun egin irakurketa bat edo bestea, nora garamatzan iraganaren irakurketa batek edo besteak. Gauza bati deitu *balentria* edo deitu *konkista*, konotazioa aldatzen da, erabat. Balentria noren izenean? Zertarako? Ari gara itsas historiaz hizketan, eta itsas historia hark ez al dauka loturarik gaur egungo itsasoko historiarekin? Zenbat jende ari den hiltzen?

Bestalde, turismoaren kontu hau guztia dago, Elkanoren figura erabiltzea herria famatzeko eta turismoa erakartzeko. Baina zenbat turismo? Ze preziotan? Ze hizkuntzatan?

Niretzako mingarria eta lotsagarria da Getariako Abesbatza Espainiako erregearen aldamenean irribarrez ikustea, iruditzen zaidalako gure historiako atal batzuk pasatzea oso azkar, eta oso eroso sentitzea min handiaren gainean.

Aldi berean, nahiko etsita ere banago, honek hartu du abaila bat eta gelditzeko oso zaila da. Iruditzen zait herrian bertan ere ez dagoela nahiko masa kritiko deseroso sentitzen dena honekin. Orduan, nik badakit zer sentiarazten didan gertatzen ari denak, badakit ez zaidala gustatzen, baina hortik aurrera…

Ikusi elkarrizketa zabalagoa ***www.artzape.eus*** *webgunean.*

Getaria Gertu aplikazioa

HARREMANAK TEKNOLOGIA BERRIETARA EGOKITZEN

Telefono mugikorrari lotuta igarotzen dugu eguna, gero eta baliabide gehiago kontsumitu zein bideratzen ditugu horren bitartez. Horren jakitun da Getariako Udala; horregatik, herritarrekin dituen harremanak erraztu nahiz hobetzeko, sakelekorako aplikazioa garatu du. Abenduan zehar jarriko dute eskuragarri Android zein IOS sistema eragileentzat.

TESTUA
IURE EIZAGIRRE

Getariako Udala prest eta hurbil dagoela aditzera emateko asmoz sortu dute Getaria Gertu mugikorretarako aplikazioa. Herritarrentzako "beste komunikazio bide bat" zabaldu nahi izan du erakundeak, errazagoa eta arinagoa.

Aurrez aurreko harrera eta webgunea izan ditu orain arte informazio eta harremanetarako bide nagusi. Euskarri berriak haien funtzioetako batzuk ordezkatuko ditu; ez, ordea, guztiak. "Aukera ematen du gertakariak jasotzeko edo inkestak egiteko, aretoak erreserbatzeko, sare sozialetara bideratzeko, jakinarazpenak helarazteko, ekintzen berri emateko...", azaldu du Ibon Gereka Parte-hartze zinegotziak.

Baliabide horiek guztiak eskura izateko aplikazioa instalatu beharko dugu mugikorrean. Abenduan zehar jarriko dute Play Storen eta App Storen, beraz, Android zein

Abisuak
Herriarekin lotutako informazioa emango dute hauekin: errepide mozketak, dirulaguntza deialdiak...

Erreserbak
Eragileek erreserba ditzakete eraikin eta aretoak. Eskaria okupazioaren agendan sartuko du.

Agenda
Orain arte wegbunean egin diren ekitaldien eguneraketak aplikazioan egingo dira gero.

IOS sistema eragileetan erabili ahal izango dugu. Instalatzerakoan, erregistro datuak bete beharko ditugu; hortaz, gure eskari zein abisuen hartzaileak une oro jakingo du norekin dabilen harremanetan. Norbanako edo eragile bezala eman dezakegu izena eta horren arabera, aukera batzuk edo besteak eskainiko zaizkigu.

Zitu enpresak garatu du Getaria Gertu aplikazioa, Aiora programaren bitartez. 10.738 euroko kostua du; horren baitan sartzen da hiru urteko mantenua. Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiak 4.000 euroko dirulaguntza emango du.

Horiek guztiak ezagututa galdera garbia da: zertarako aukera emango du, bada, aplikazioak?

Menu nagusia

Gure mugikorrean aplikazioa instalatutakoan marroi eta laranja koloreko pantaila zabalduko zaigu. Erregistratzeko erabili dugun izena agertuko da goiko aldean, kanpo loturak bestaldean —webguneko online izapideetara, besteak beste— Udalaren logotipoa erdian eta menu nagusia beheko ezker aldean —azpiko irudia—.

Torloju itxurako marrazkiak gure profiletik atera eta beste batekin —eragile batenarekin, adibidez— sartzeko aukera eskainiko digu. Horrez gain, hizkuntza aldatu eta jakinarazpenak aktibatu zein desaktibatu ditzakegu hortik.

Alboko hau ez da, ordea, menu nagusira joateko aukera bakarra. Izan ere, hainbat eta hainbat aplikazioren moduan, goiko eskuin aldean, lerro itxurako marrazkia du Getaria Gertuk ere. Horra joanez gero, aukera berak ikus ditzakegu; hori bai, antolaketa desberdinarekin.

Gertakariak

Herrian gertatutako gauzen berri eman ahal izango diote getariarrek Udalari.

Dokumentu ofizialak

Dokumentu ofizial publikoak egongo dira eskura. Pertsonalak ez, Datuen Babeserako Legea tarteko.

Mezularitza

Udaleko sail ezberdinetara mezuak bidali ahal izango ditu erabiltzaileak.



Euskara eta mundu bira

BELAK ZABALDU DIRA EUSKARAREN ALDE

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen da. 1949. urtetik datorren ohitura da, izan ere, urte hartan, Eusko Ikaskuntzak Euskararen Eguna ezarri zuen. Hala ere, 1995. urtera arte, Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak egitasmoarekin bat egin zuten arte, ez zen Euskararen Nazioarteko Eguna instituzionalizatu.

TESTUA
INTZA GURRUTXAGA

Eta ba al dakizu zergatik ospatzen den abenduaren 3an? Bada egun horrek Frantzisko Xabierkoarekin lotura zuzena du. Frantzisko nafar misiolaria izan zen, Jesusen Lagundiko lehenengo zazpi kideetako bat. Frantzisko 1552ko abenduaren 3an hil zen, eta, kondairak dioenez, hil aurreko azken hitzak bere ama-hizkuntzan, hau da, euskaraz egin zituen.

Abenduaren 3an, euskara sustatzeko eta zabaltzeko helburuarekin egitasmo ugari egiten dira. Aurtengoan, Elkano Fundazioak bere hondar alea jarri du euskararen alde eta *National Geographic* aldizkariak urtero argitaratzen duen agenda, euskaraz kaleratuko dute lehenengo aldiz.

Proiektu berri honen inguruan berriketan aritu gara Ion Irurzun, Elkano 500 Fundazioko zuzendariarekin eta Alaia Berriozabal fundazioko kidearekin. Irurzunek adierazi duenez, "National Geographic oihartzun handiko erakundea da eta gure mezua zabaltzeko leku egokia dela iruditzen zaigu". Pasa den urtean, Bartzelonan, elkartu ziren lehen aldiz National Geographic-eko zazpi kiderekin. "Guk gure egitasmoa aurkeztu genien, besteak beste, helburuak eta ikuspegia. Proposamena gustatu egin zitzaien eta hortik aurrera gauza batek bestea ekarri du", aitortu du zuzendariak.

National Geographic-ek, beste hainbat gauzen artean, agenda bat argitaratzen du urtero. Formatu txikian kaleratzen den agenda aldizkariaren abenduko alearekin batera eskura daiteke. Aparte ere eros daiteke, kasu horretan, formatu handian ere bai.

Agenda gai edo testuinguru jakin bat oinarri hartuta osatzen dute, eta dirudienez, erakunde ugarik nahi izaten du urteko agenda hori egin. Aurtengoa, 2019koa, esaterako, planeta jasangarria eraikitzeko asmoaren inguruan dago girotuta. Irurzunen hitzetan, "egiten zituzten produktuak ikusi ondoren, datorren urteko agenda egin nahi genuela esan genien". Horrela, Fundazioak, Elkanoren mundu biraren 500. urteurrenaren harira, National Geographic-i proposatu zion gai hori lantzea.

Elkano Fundazioak, hainbat historialariren laguntzaz, agendako edukiak sortu ditu, pixkanaka, agenda osatu arte. "Edukien sorreran ekarpen ugari izan ditugu, besteak beste, Daniel Zulaikarena, Xabier Alberdirena edota Pablo Emilio Perez-Mallainarena". Beraz, gaia "ikuspegi desberdinetatik" landu dela baieztatu du Irurzunek. Ekarpen horietan guztietan premisa izan da "informazioa datu objetiboetan oinarritzea eta hipotesiak alde batera uztea". "Lanean pasa den ekaina edo uztaila aldera hasi ginen", esan du Alaia Berriozabalek.

Agendan, ibilbidearen puntu eta lurralde desberdinen inguruko informazioa emanez, lurrari lehenengo aldiz emandako bira hura kontatzen da. Horrez gain, euskal ekarpena balioan jartzen saiatu dira: "Agendan, une oro, euskaldunek egindako ekarpen desberdinak aipatzen dira", adierazi du Berriozabalek. Testu eta argazki ugariz dago osatuta; horietan, nola ez, Getaria ere azaltzen da. Herriari behin baino gehiagotan egiten zaio erreferentzia. Anekdota modura, abuztuaren 6a, Salbatore Eguna, gorriz egongo da. Gainera, Beñat Gereka getariarraren pare bat argazki daude; horietako batean, arrantza sektorean diharduten hainbat getariar agertzen dira.

Lehenengoz, agenda euskaraz

Fundazioak, pauso bat aurrera emanez, agenda gaztelaniaz ez ezik, euskaraz ere argitaratzeko proposamena egin zion National Geographic-i; Irurzunen hitzetan, "agenda euskaraz kaleratu nahi genuela esan genien". Azkenean, euskaraz egitea onartu zuten, eta guztira, 5.000 ale kaleratuko dira.

Euskarazko agenda, gaztelaniazkoa ez bezala, formatu handian bakarrik argitaratuko da. Gaztelaniazko bertsioaren itzulpen bat izango da, hau da, informazio eta eduki berdinak agertuko dira. "Euskarara itzultzeaz, Bakun enpresa arduratu da".

Lankidetza

National Geographic-ek interesgarria deritzo Elkano Fundazioak egiten duen lana. Berriozabalek dioenez, "iraileko eta urriko aleetan mundu biraren inguruko artikuluak argitaratu dituzte". Etorkizunari begira, Irurzunek honakoa aitortu du: "Gauza gehiago egin nahi dituzte gurekin, baina pixkanaka-pixkanaka, ikusiko dugu gauzak nola egin". Oraingoz, Elkano Fundazioari, erakundearen 2021eko agendaren ingelesezko bertsioa mundu biraren inguruan izatea gustatuko litzaioke.

MIREN EGAÑA

ITSASOAK ERE ZEHARKATU ZITUEN EUSKARAK

Euskararen Nazioarteko Egunari begira, hitzaldia antolatu du Elkano 500 Fundazioak. Abenduaren 3an, *Kanadara joateko euskaraz jakin behar da* izenburupean, Miren Egaña donostiar hizkuntzalari eta Aranzadi Zientzia elkarteko kidea Kanadan euskarak izan zuen eta duen presentziaz ariko da.

Egaña, 1968az geroztik, Aranzadi Zientzia elkarteko etnografia saileko kidea da. Hainbat ikerketa egin ditu alor horretan, besteak beste, Kanadako toponimiaren azterketa. Ternuara baleak arrantzatzera joan ziren lehenetarikoak euskaldunak izan ziren, horregatik, euskal toponimo ugari aurkitu ditu Egañak bertan. Bidaia haietan itsas nabigazioaren inguruko jakintza berriak jaso zituzten euskaldunek eta horiek, aurrera begira, lehen mundu bira gauzatzeko balio izan zuten.

Nondik dator hitzaldiaren izenburua?

Izenburuak 1613an du jatorria. Pierre de Lancre garai hartako Bordeleko inkisidore nagusia zen. Epailea zen baina inkisidore modura bidali zuten Euskal Herrira. Hark, 1613an, Iparraldeaz gain, euskaraz non hitz egiten zen esan zuen; era berean, zioen Kanadako indioekin merkataritzan eta tratuan aritu ahal izateko euskaraz jakin behar zela.

Euskaraz? Zergatik?
Garai hartan, Europatik Kanadara joaten zirenak, gehienbat, euskaldunak ziren. Kostako hiru probintzietatik joandakoak ziren gehienak, baina baita Lapurdikoak ere. Horren berri Garibaik eman zuen Pierre de Lancrek baino mende bat lehenago. Inork ez zituen hango indioen, eskimalen edota topatzen zituzten beste nazioen hizkuntzak ulertzen, eta euskaldunak ziren bertakoekin harremana zuten bakarrak.

Zu Kanadan ere izan zara, zer aztertu zenuen bertan?
Bai, Kanadan egon izan naiz euskal toponimia aztertzen. XVII-XVIII. mendeetatik gaur arte iraun duten euskal toponimiak zeintzuk diren identifikatu ditut. Euskaldunek egindako Ternuako mapak aztertu ditut, eta euskal toponimia pila agertzen da. Horrez gain, euskaldunek idatzitako itsas gida liburuak ere badaude. Horien helburua da beste arrantzaleei itsasoan mugitzeko nondik norakoak ematea.

Esaterako, Juan Sebastian Elkanok, bere bigarren bidaian, Andres Urdaneta eraman zuen berarekin eta hark Ozeano Bareko ur korronteak jaso zituen. Ondoren, Felipe II.ak Miguel Lopez Legazki konkistatzailea Filipinetara bidali zuenean, Urdaneta Mexikon zegoen komentu batetik atera eta Legazpik berarekin eraman zuen. Izan ere, Urdanetak bazekien Ozeano Barean nola mugitu. Garai hartako itsasontziek ez zituzten gaur egungo motorrak eta mugitu ahal izateko, haizea behar zuten. Elkano ere euskal arrantzale horien jakintzaz baliatu zen bere bidaian.

Zertaz hitz egingo duzu, zehazki, hitzaldian?
Alde batetik, euskaldunek indioekin eta eskimalekin zituzten harremanez ariko naiz. Antza denez, indio eta eskimal horiek euskara ikasi zuten. Bestetik, garai hartan sortutako euskal toponimoen inguruan hitz egingo dut, ea oraindik erabiltzen diren... Argazkiak erabiliko ditut eta horietan ikusten da gaur egun ere euskararen presentzia dagoela, han hemenka, errepideetan, bide bazterretan...

Hitzaldiaren abiapuntu gisa pare bat testu historiko hartu dituzu, ezta?
Bai, alde batetik Garibairen testua eta bestetik Lope Martinez de Isastirena. Biak hemengo historialariak ziren, oso gutxik ezagutzen dituen arren.

Amaitzeko, euskaldunek ze garrantzia izan zuten lehen mundu biran?
Hasteko, hainbat historialarik diote euskaldunak Cristobal Colon baino ehun urte lehenago joan zirela Ternuara, eta badirudi, euskaldun haiek erakutsi ziotela Coloni hara heltzeko bidea. Horrek esan nahi du euskaldunak itsasoan ibiltzen ohituta zeudela, distantzia oso luzeak egiten zituztela eta batez ere, ur korronteen nondik norakoetan oso abilak zirela.

Izan ere, itsasoan, bideak beharrean korronteak daude, eta euskaldunak, beste hainbat gauzen artean, adituak ziren horretan. Gainera, oso itsasontzi egokiak eraikitzen zituzten. Hori dela eta, badakigu, lehen mundu bira hartan euskaldun ugarik hartu zutela parte.

Hala ere, nik batez ere euskal toponimia eta euskara Kanadan nola erabiltzen den aztertu dudanez, horren inguruan hitz egingo dut. XVIII. mendean, indioek hizkuntza nahasi bat hitz egiten zuten, eta garai hartako euskaldunek diote hizkuntza nahasi horretan euskara ere erabiltzen zutela. Euskararen egunean hori azpimarratzea eta jendeak horren berri izatea niretzat oso garrantzitsua da: mendeetan harreman bat egon da, eta harreman horretan euskara agertzen da. Kanada ez da salbuespen bat, Islandian ere aurkitu dira euskararen arrastoak.

ZAINTZA EGUNAK

Abenduaren 16tik 20ra.

FULDAIN FARMAZIA



2020ko udal aurrekontuak, behin-behinean onartuta

Azaroaren 26an egin zuen Getariako udalbatzak ohiko batzar osoa. Besteak beste, 2020ko udal aurrekontuak aurkeztu zituzten, eta EH Bilduren aldeko sei botorekin eta EAJren aurkako lauekin, aurrera atera dira behin-behinean. Jendaurrean aurkeztu eta helegiteak jartzeko aukera izango da egun batzuetan, eta udalbatzarreko ordezkariek behin betiko bozketa egin beharko dute gero.

Behin-behinean onartutako aurrekontua 3.682.712 eurokoa da, 2019koa baino 140.000 euro inguru baxuagoa.

Datorren urteari begira, aldaketak aurreikusten dira, besteak beste, pertsonal gastuetan. Izan ere, kale garbiketa indartzeko bi lanpostu sortuko dira, baita arkitekto bat jardun osorako kontratatu ere. Herriko elkarteen jardunera bideratzen den dirulaguntzetan, berriz, gorabehera txikiren bat salbu, ez da berrikuntza handirik izango.

EH Bilduko zinegotziak behin-behineko aurrekontuei baiezkoa bozkatzen.

Inbertsio errealetara 442.764 euro bideratuko dira, eta honako asmoetarako erabiliko da dirua: Haur Hezkuntzako jolaslekua berritzeko, Elkano eta Arnao kaleak txukuntzeko, herri mantenu zein hobekuntzarako, herri bideak konpontzeko, aparkalekuen prozesutik ateratako erabakiak gauzatzeko, Elkano nahiz mundu biraren inguruko ekimenak burutzeko, ekipo informatikoak eguneratzeko... Gainera, aurtengo aurrekontutik hurrengo urtekora pasako dira tokiko garapenean zein turismoan inbertitzeko 12.100 euro, memoria historikorako 19.000, surfeko lokala berritzeko 10.000 euro eta herri bideak amaitzeko 10.000 euro.

BIYONA
BERRIKUNTZAK -REFORMAS
BARNE DISEINUA
ESTUDIO DE INTERIORISMO

* SUKALDEAK *ETXEKO ALTZARIAK *BAINUGELAK
* AROTZERIA *KERAMIKA *LEIHOAK *PAPER PINTATUAK
WWW.BIYONA.NET
POL. ABENDAÑO, 2 ZARAUTZ
943 13 50 16

elan euskadi
ONGD - GGKE

Azaroak 25: Indarkeria matxistaren aurkako eguna

Azaroa iritsi zaigu eta berarekin batera indarkeria matxistaren aurkako eguna. Gure gizarteak urteko 365 egunetan duen arazo estruktural bat da genero indarkeria, baina azaroak 25 izaten da hausnarketa egitera bultzatzen gaituen eguna. Ez gurean bakarrik, mundu zabaleko herrialde desberdinetan arazo larriak dira emakumeen aurkako erasoak.

Elan Euskadik ARTZAPEn argitaratzen dituen artikuluen helburuetako bat denez garapen bidean dauden herrialdeen errealitatea ezagutzera ematea, gaurkoan, Keniako egoeraz eta indarkeria matxistak bertan duen eraginaz jardungo gara.

Keniako Krimenen Bulegoak 2014an —ezin izan dira eguneratutako datuak aurkitu— argitaratutako datuek honakoa diote: bost emakumetik batek indarkeria sexuala pairatu du, eta herrialdeko 15 eta 49 urte arteko emakumeen %45ak indarkeria fisikoa eta/edo sexuala jasan ditu.

Orain arte ez bezala, emakumeak kalera ateratzen hasi dira. Feminists in Kenya taldeak antolatuta, "emakume beltzen gorputzak humanizatzea" aldarrikatzen dute. Horrekin batera, Keniako gobernuak indarkeria matxistari aurre egiteko eskatzen dute.

Talde horretako kideek diote beraien gizartean ez dela hitzik egiten emakumeek jasaten duten indarkeriaren inguruan, nahiz eta biktima kopurua handia izan. Beraien iritziz, genero indarkeria estatu mailako larrialdi bat da eta gobernuak horrela ulertzea dute helburu.

Emakumeak Kenian pairatzen duen jazarpenaren beste aurpegi bat izan daiteke Nancy Kiprop. Nazioarteko prentsan berriki azaldu da bere izena New Yorkeko maratoian lortu duen emaitza onagatik. Korrikalari ospetsua da Nancy eta urte asko daramatza lasterketa desberdinetan parte hartzen. Nancyk 40 urte ditu eta zazpi seme-alaben —horietako bost adoptatuak— ama da.

Horrez gain, Nancy Kiprop irakaslea da formazioz eta 2018an Nancie Cletius Academy sortu zuen bere aurrezkiekin Chesiteken, bere jaioterrian. Gaur egun, 150 neska-mutil joaten dira egunero eskolara eta sei irakasle dituzte lanean.

Nancy aurtengo urrian laugarren emakumea izan da New Yorkeko maratoian; dirutan 25.000 dolarretako saria jaso du, beste 3.000 dolar master atleta onena izateagatik. Sari osoa Nancie Cletius Academyrako izango da. Diru horri esker, hurrengo ikasturtean haur gehiagok izango dute Keniako Chesitek herrian ikasteko aukera. Nancyk eskola sortu zuenean hezkuntzaren bitartez bere komunitateari laguntzeko nahia azaldu zuen eta helburu hori betetzen ari da.

Hezkuntza da erasotzaile gehiago ez izateko bidea eta biktimei jazarpen egoerak ez onartzeko laguntza. Bai Kenian, bai mundu zabaleko edozein lekutan, hezkuntza da indarkeriari aurre egiteko tresna nagusia eta sustraitik egoera konpondu dezaken bide bakarra.

Udaletxeko artxiboetatik
EREITEN Kultur Zerbitzuak

Emeterio Sorazu Ugartemendia: jatorrizkotik jatorrira

Liburutegiak eta artxiboak bereizteko zailtasunak izaten dituzte askok. Amankomunean asko duten arren, desberdintasunak ere nabariak dira; bietan informazioa gorde eta kudeatzen da, baina artxiboetan, liburutegietan ez bezala, originalak bakarrik kontserbatzen dira. Autore batek liburu bat argitaratzen duenean, bere obraren kopia ugari ekoizten du. Hauek liburu-dendetara edota liburutegietara heltzen direnean, irakurleak kopia hauetariko bat eskura eta irakur dezake. Horrela hedatzen da igorlearen mezua. Artxiboetan berriz, ekoizle batek bere zereginak betetzerakoan sortutako dokumentazioak kudeatzen dira. Ebidentzia hauek originalak dira, ez daude beste inon.

Baina askotan errealitatea teoria baino anitzagoa izaten da. Horren isla, Getariako Udal Artxiboan egin genuen aurkikuntza. Emeterio Sorazu Ugartemendia apaiz eta ikertzaileak idatzitako *Askizuren kondaira eta bertako familien jatorria* izeneko argitaratu gabeko lana topatu genuen.

Emeterio Sorazu. /Arg.: familiak utzia.

Emeterio Sorazu Ugartemendia Askizuko Serorategi etxean jaio zen 1937ko urtarrilaren 27an. Nahiz fisikoki Ibarran bizi, 2008ko apirilaren 14an, sorlekura itzuliko da lan honen bidez. Eskarmentu handiko ikertzaile roletik, ondoen ezagutzen zuen lurraldea eta bertako eraikuntza zein familiak aztertu zituen. Idazlanak, beraz, kutsu profesional eta pertsonala uztartzen ditu. Ikuspuntu pribilegiatu honen bidez, Askizuko kultura materiala zein ez-materiala biltzen da aipatu dokumentuan.

Ondorioz, gaur egun, ingurumari horiek ezagutzeko iturri aberatsa da liburu hau. Askizuko jatorria duen edozeinek, bere familiaren eta baserriaren nondik norakoak ezagutu ditzake. Gainera, artxiboko dokumentuetan ez-ohikoak diren datuen berri ere izan dezake irakurleak, ahoz aho eta belaunaldiz belaunaldi transmititutako informazio galkorra baita askotan ikertzailearen informazio iturria.

Originala zer den bi hitzetan adierazi beharko bagenu, *bakar* eta *jatorrizko* kontzeptuak aukera genitzake. *Askizuren kondaira eta bertako familien jatorria* liburua bakarra da. Ez zen argitaratua izan, beraz, dakigunez behintzat, ez dago lan honen beste kopiarik. Emeterio Sorazu, gainera, jatorriz Askizuko zen. Bere guraso eta aitona-amonengandik jaso zuen kultura eta jakinduria partekatzen du irakurlearekin idatzi honen bidez. Dokumentu hau, hortaz, zentzu guztietan originala da.

Emeterio Sorazu Ugartemendiaren heriotzetik bederatzi urte beteko dira abenduan. Urteurren honen testuinguruan eta bere lana nabarmenduz, artikulu honetako hitzak bera omentzeko erabil bitez.

Autokarabana, batzuen poza eta besteen amorrua

Eguraldi argitsua iristen denerako, hasten dira autokarabanak zein furgonetak gure errepideetan sarriago ikusten, uda gertu dagoen seinale. Getaria herri aproposa da egun batzuk pasatzeko: lasaia, bi hondartza zoragarri eta paisaia aldetik, ikusgarria. Horrek dakarren poza nahiz egonezina.

Oporretan hautu hau egiten dutenek era honetako turismo mota gustuko dute. Naturaz eta bizitzako gauza txikiek ematen dieten askatasunaz gozatzen dute.

Dena ez da hain polita, ordea. Udal batzuek, legeari aurka eginez, legez kontrako ordenantzak onartu eta aparkatzeko arazo asko jartzen dituzte. Beraz, badago zerbait hobetzeko. Eta ez da hitz egiten espazio gehiagoz edo erosotasunaz, baizik eta autokarabanen legeaz.

Kalean ere gauza asko entzuten da: aparkatzearena, kontsumoarena, garbitasunarena…

Aparkatu edo akanpatu, non dago desberdintasuna?

Aparkatzetik akanpatzera dagoen aldea argitzeko, esan, beste edozein auto bezala, aparkatzeko eskubidea dutela baldin eta ez bada autoak zirkulazioan duen perimetroa gainditzen; ez badu esekitokirik; ez badu isurtzen ur zikinik kalera; ez badu mahairik, aulkirik, kanpora ateratzen…

Autokarabana kalean aparkatuta.

Zergatik amorrarazten gaitu autokarabanen eta furgoneten presentziak herrian? Agian informazio falta?

Gero eta gehiago dago era hontara bidaiatzen duen jendea, ze badirudi bidaiatzea edo oporretara joatea, hegazkina, trena, autobusa edo itsasontzia hartuz egin behar dela, hotelak edo apartamentuak direla bide bakarra. Gure kulturan ez daukagu errotuta autokarabana eta furgoneten mundua, baina aukera bat gehiago da.

Europara begira, bikote helduak, erretiratuak, dira gehien ikusten direnak bidaiatzen. Urteak daramatzate aintzindari izaten, eta asko dugu ikasteko. Nahiz eta Euskal Herrian ikusten den azken urteetan gazte eta ez hain gazteen artean joera aldatu egin dela eta goruntz doala era honetara bidaiatzeko ohitura.

Bada aipatzen den beste kontu bat ere: turista mota honek dirurik ez duela uzten herrian. Badirudi, herrian dirua uztea dela pintxoak jatea edo jatetxeetara joatea. Era asko dago gure herrian dirua uzteko, adibidez, janari dendetan, estankoan, farmazian, oroigarri dendan, arropa dendan, izozki-dendan, okindegi eta kafetegietan, arrandegian…

Garbitasunagatik ere txutxumutxuak egon badaude: udan Getarian, beste kostako herri askotan bezala, jende eta kotxe askoren presentzia nabarmena da eta horrek gaizki aparkatu, txiza edonon egin, eskuan duzuna lurrera bota eta abar eragiten duela…

Bukatzeko, esan, denok pertsona bezala, kotxea, autokarabana edo furgoneta izan, arau batzuk bete behar ditugula. Bakoitzak bere aldetik aletxo bat jarriz gero, eta errespetuz, elkarbizitza eramangarriagoa izan daiteke. Hori dena, gure esku dagoela badakigu.

50 urte modernitatean



Gure literaturaren aro berri bat abiatu zen Txillardegiren ***Leturiaren egunkari ezkutua*** nobelarekin (1957) eta Gabriel Arestiren ***Harri eta herri*** poema liburuarekin (1964). Segidan etorri zen euskara eredu batua, 1968ko urrian Arantzazun, Euskaltzaindiaren biltzarrean finkatu zirenean idazteko zenbait arau.

Baina esan ohi dugu, orain dela 50 urte murgildu ginela modernitatean. Izan ere, 1969an argitaratu ziren Txillardegiren ***Elsa Scheelen*** nobela (idazlearen onena); eta idazle gazteagoen aurreneko liburuak: Ramon Saizarbitoriaren ***Egunero hasten delako***, Joxan Artzeren ***Isturitzetik Tolosan barru***, Ibon Sarasolaren ***Poemagintza***.

Eta ondoren, 1970ean, Jon Miranderen ***Haur besoetakoa***, Gabriel Arestiren ***Harrizko herri hau***, Anjel Lertxundiren ***Hunik arrats artean***.

Eta gero, 1971n, Joxe Azurmendiren ***Hitz berdeak*** eta... Mikel eta Amaia Lasaren ***Poema bilduma***. Zein dotorea eta ederra Amaiaren poema hau: "Nireak ez diren lurralde hauetatik ihes egin nahi nuke / Nireak ez diren ur hauek alde batera utzi egin behar ditut / Haitz sendoaren biribiltasunean nire bizitzaren hitza lortu nahi nuke / Biribiltasunean, sendotasunean, haitzaren gainean a e i o u berri bat esan nahi nuke". Literaturaren aro berri hartako ikurretako bat da.

Sakontasun berezikoak dira 1969an, duela 50 urte, plazaratutako bi nobela berritzaile haien gaiak: **dibortzioa** eta **abortua** (legezkoak ez zirenean hemen, Hegoaldean). Txillardegiren ***Elsa Scheelen*** nobelako protagonistak dibortziatzea erabaki du, abiarazi ditu tramiteak, alokatu du etxe bat. Saizarbitoriaren **Egunero hasten delako** nobelako protagonista Gisele ikasle unibertsitarioa da, haurdun geratu da, abortatu egin nahi du, ez dauka erraza. Emakume modernoaren bakardadeaz mintzo dira funtsean bi liburuok. Ez dira hemengo emakumeak; Belgikakoa da Elsa, Suitzakoa da Gisele. Txillardegik exilioan idatzi zuen nobela, Bruselan; Saizarbitoria soziologiako ikaslea izan zen Friburgon.

Getariako Liburutegian dauzkazu, irakurri nahi izanez gero.

Tximeletak

Azaroaren 25ean Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna ospatzen da. Baina ba al dakigu zergatik ospatzen den egun horretan?

Egun hau Dominikar Errepublikak proposatu zuen Nazio Batuen Erakundeko batzar batean eta beste 60 herrialdek babestu zuten. 1999ko abenduaren 17an erabaki zen Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna azaroaren 25ean ospatzea.

Zergatik proposatu eta aukeratu zuten egun hori? 1960ko azaroaren 25ean Dominikar Errepublikan Mirabal ahizpak hil egin zituztelako.

Garai hartan, Dominikar Errepublikan Rafael Trujillo diktadorearen menpe zeuden baina Mirabal ahizpek —Patria, Minerva eta Maria Teresa— bere aurka gogor borrokatu zuten. Hori dela eta, kartzelatu, bortxatu eta torturatu egin zituzten behin baino gehiagotan. Hala ere, gogor jarraitu zuten borrokan. Borroka horretan, Mirabal ahizpek *Tximeleta1*, *Tximeleta2* eta *Tximeleta3* deitzen zioten beren buruari.

1960ko maiatzaren 18an Minerva, Maria Teresa eta haien senarrak epaitu egin zituzten. Senarrak kartzelatu eta bi ahizpak etxean atxilotuta egotera zigortu zituzten.Bi egun zituzten etxetik irteteko: bat, mezetara joateko eta bestea, senarrak bisitatzeko.

1960ko azaroaren 25ean, hiru ahizpak senarrak bisitatzera joan ziren kartzelara eta bueltakoan Trujilloren militarrek kotxea geldiarazi zuten. Autotik atera, bazter batera eraman eta jipoitu egin zituzten hil arte. Ondoren, gorpuak kotxean sartu eta amildegi batetik behera bota zuten jendeak pentsatzeko istripu bat izan zela. Inguruan zegoen jendea mehatxatu egin zuten isilik mantentzeko.

Gertaera honen ondorioz, jendea asko haserretu zen eta Trujilloren diktaduraren gainbehera hasi zen. 1961eko maiatzaren 30ean Trujillo diktadorea hil zuten.

Urte bat geroago, 1962ko ekainean, Mirabal ahizpen hiltzaileen aurkako epaiketa egin zuten eta denei 30 urteko kartzela zigorra ezarri zieten. Haietako bati, kasua argitzen lagundu zuelako, 20 urteko kartzela zigorra ezarri zioten. Hala ere, ez zuten kondena guztia bete, Trujilloren aldeko militarrek Dominikar Errepublikatik ihes egiten lagundu zietelako.

"Ni hiltzen banaute, besoa hilobitik atera eta indartsuagoa izango naiz".
Minerva Mirabal

Indarrez ekintzak prestatzeko

Kaixo Katxopa eta Urritza-zaleok!

Abenduari ongi etorria ematearekin batera, urtearen amaiera datorkigu, baina lasai, Urritzako kideok lanean jarraitzen dugu urte berriari hasiera emateko! Gaztelekuak ekintzaz gainezka jarraitzen du eta urtero bezala, Gabonen inguruan haurrentzat ere ekintzak antolatu ditugu.

Ohi den moduan, gaztelekua gaztez gainezka izan dugu aurtengoan ere; hilabetetan zehar ekintza ugari eta denbora asko igaro dugu elkarrekin. Hala ere, aipatu bezala, ez dugu deskantsurik hartuko eta Gabonetako oporretarako hainbat ekintza antolatu ditugu, baita irteera bat lasergunera ere, animatu!

Bestalde, Urritzari dagokionez, aurtengoa ere urte bikaina izan da guretzat. Alde batetik, udaleku irekiak oso jendetsuak izan dira, baina honez gain, urte guztian egindako ekintzetan zehar ume ugari izan dira. Urrian esaterako, Katrapuna plazara ume asko inguratu ziren buruhandiak egiteko asmoz, eta diseinu ezberdin ugari ikusi genituen! Baita azaroan Berdura plazan egindako kamiseta eta maskaren eskulanetara ere. Eguraldiak ez zituen haurrak uxatu! Beraz, mila esker urte guztian zehar gugan izandako konfiantza guztiagatik.

Azkenik, berriz ere eskerrak eman Getariako Udalari, aurtengoa berezia izan delako Urritzako kideentzat, Salbatore festetako ikurrinaren igoeran parte hartzeko aukera eman baitziguten.

Besterik gabe, ondo izan eta izango dugu elkarren berri!

Herriko haurrak buruhandiak egiten Katrapunan.

EDURNE IRIGOIEN

PLIST & PLAST

ANDRES ALBERDI

Gezurra eta apasta

Gaurkoan ez dugu hitz bat aukeratu, Getarian oso ezaguna den esapide bat baizik: jardun etengabean egiatik baino gezurretik gertuago aritzen den pertsonaren berriketa gehiegizko eta ez fidatzekoari esaten diogu hala Getarian: *Gezurra eta apasta besterik ez dik/din esaten horrek*.
Hiztegietan ez da ageri esapide molde hori. Haietan ageri den horren pareko esapide hedatuena ***gezur eta abar*** da: *Gezur eta abar, inork baino hobeto egiten zion hark gustua bere senarrari*.
Toki batzuetan, ***gezurra eta papartza*** esapidea ere erabiltzen dute: *Hori ez ta gezurra eta papartza baizik*.
Parekotasun handiko esamoldeak dira hirurak ere, esanahi beretsukoak baitira. *Abar* hitzak zuhaitz-adar adieraz gainera, badu hondakin, soberakin adiera ere. *Papartza* ele-mele merkea, maxiaketa, balio gabeko traste edo jarduna da. *Apasta* hitzak ere (berez, lehen adieran, arrainak erakartzeko botatzen den txiki-txiki egindako balio handirik gabeko arrainez eginiko pasta edo orea bada ere) badu, hasieran esan bezala, beste bi horietan jasotzen den adiera ere.

Getarian eta inguruetan esaten diren hitzen txokoa da hau. Animatu eta bidali *info@artzape.eus*era ezagutzen dituzun hitzak.

AMAIA IRAZABAL

Argazki bat

Argazki bat erosi nuen Baionan.
Les Jolies Choses. Polita bada,
arrautza gorringo koloreko itsasoa,
silueta ilunagoa zutik olatuan.
Aurrez aurre daukat, burukoa
aldez aldatu behar izan bainuen,
hormako lixiba usainari esker.
Eta halaxe geratu berari begira,
begira-begira,
luzaz nahi gabe,
begira.

Eta bat-batean hasi mugitzen
itsasoa, hasi mugitzen
silueta besoa, istant hormatua
urtzen, zirrikituetatik irrist egiten,
zentzumenen akats ausazkoa.

Ilusio optikoa? Ametsa, esna aldikoa.
Sinboliko, onirikoa. Misterioa.

"*La créativite c'est l'intelligence qui s'amuse*"
A. Einstein

2019ko ABENDUA

Agenda www.artzape.eus webgunean eguneratzen dugu. Adi egon!

30 Larunbata

Alkate Txiki Eguna

- *16:30ean, tailerrak Berdura plazan.*
- *18:30ean, haurren aginte hartzea eta udalbatzarra.*
- *19:15ean, buruhandiak.*
- *20:30ean, afaria Berdura plazan.*
- *21:30etik 23:30era, disko festa.*

Antolatzailea: *Tonpe Getariako Guraso Elkartea eta lagunak*

Bertso afaria

Ordua: *21:00*
Lekua: *gaztetxea*
Antolatzailea: *Getaiko Gazte Asanblada*
Ximon Aranguren, Jon Ander de la Hoz, Libe Goenaga, Aitor Salegi eta Danel Olano ariko dira bertsotan; Ane Ezenarro gai-jartzaile.

1 Igandea

Azaroa Musikaz Blai

- *09:00etan, Gazte Alaiak Txistulari Taldearen goiz soinua.*
- *12:30ean, txistularien kontzertua Salbatore Deunaren elizan.*

Aztihitza ikuskizuna: *Xahoren urratsei jarraikiko diegu, berak eginiko bidaia errepikatuz*

Ordua: *12:30*
Lekua: *San Prudentzioko ermita*
Antolatzailea: *SPL*
Marrazkiak eta solasaldia Asisko Urmenetak eskainiko ditu; irakurketa dramatizatuak Antxo, Axeri eta Oihanartek; eta kantuak zein musika Ihitz Iriartek. Gero, xeixia egongo da.

3 Asteartea

Euskararen Nazioarteko Eguna

- *15:15ean, Iturzaeta Herri Eskolako ikasleak plazara jaitsiko dira txistulariekin.*
- *15:30ean, ekitaldiaren hasiera.*
- *15:40ean, eskolako ikasleen abestiak eta dantza.*
- *Ondoren, muxikoak, fandango eta arin-arinak...*
- *17:00etan, "Irriak plazan" ikuskizuna, plazan.*
- *19:00etan, "Kanadara joateko euskaraz jakin behar da" hitzaldia, Iturzaeta Herri Eskolan. Miren Egaña izango da hizlaria eta Martxelo Otamendi moderatzailea. Elkano 500 Fundazioak eta Getariako Udalak antolatutako ekintza.*

9-11 Al.-Az.

Musika eskolako matrikulazioa

Ordua: *16:00-19:00*
Lekua: *musika eskolaren bulegoa*
Posta elektronikoz ere egin daiteke matrikulazioa elkanomusikae@gmail.com helbidean.

14 Larunbata

Gabonetako apaingarrien haurrentzako tailerra

Ordua: *12:00*
Lekua: *Berdura plaza*
Antolatzailea: *Urritza Aisialdi Taldea*

Gabonetako kanten entsegua

Ordua: *18:00*
Lekua: *Gure Txeruren lokala*
Abenduaren 24ean aterako dira kantuan Gure Txeru eta Olentzerorekin.

Bertsio gaua

Ordua: *23:00*
Lekua: *gaztetxea*
Antolatzailea: *Getaiko Gazte Asanblada*
Gehienez bost kanta abestu ahal izango dira. Parte hartu nahi dutenak 20:00etan bilduko dira.

15 Igandea

Gabonetako kantaldia

Ordua: *13:00*
Lekua: *eliza*

Antzerkia: *Txarriboda*

Ordua: *19:00*
Lekua: *Iturzaeta Herri Eskola*
Antolatzailea: *Getariako Udala*
Hika Teatroaren lana. Sarrerak abenduaren 2tik aurrera egongo dira salgai, 8 eurotan, turismo bulegoan.

16-20 Al.-Ig.

Musika eskolaren entzunaldiak

Ordua: *18:00*
Lekua: *musika eskola*
Antolatzailea: *Katxopa gaztelekua*

19 Osteguna

Katukale irakurle taldearen saioa

Ordua: *18:30*
Lekua: *udal liburutegia*
Xabier Gantzarain idazlearen "Zuloa" lana aztertuko dute.

20 Ostirala

Zarautz abesbatzaren Gabon kontzertua

Ordua: *20:30*
Lekua: *Salbatore Deunaren eliza*
Antolatzailea: *Zarautz abesbatza, Getariako Musika Banda eta Getariako Udala*

21 Larunbata

San Tomas Eguna

Talo eta txorizo jana, musika...
Antolatzailea: *Gure Txeru*

Gabonetako kanten entsegua

Ordua: *18:00*
Lekua: *Gure Txeruren lokala*
Abenduaren 24ean aterako dira kantuan Gure Txeru eta Olentzerorekin.

Txokolate beroa

Ordua: *Gabon kanten entseguaren ondoren*
Lekua: *Gure Txeruren lokala*

24 Asteartea

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera

Ordua: *18:30*
Arratsaldean herriko taldeak kalez kale ibiliko dira kantari.

31 Asteartea

San Silbestre kros herrikoia

Ordua: *12:00*
Antolatzailea: *Kirolgune eta Getariako Udala*

Cristobal Balenciaga Museoa

Eguberrietako kanpamentua

Eguberrietako oporrekin bat eginez, 6 eta 12 urte arteko haurrentzako goizeko kanpamentua eskainiko du abenduaren 26an eta 27an. Bertan dauden obrak ezagutu eta hainbat jarduera egingo dituzte. Izena emateko 943 008 840 telefonora deitu edo didaktika@cristobalbalenciagamuseoa.com helbidera idatz daiteke.

Saiazgetaria
HOTELA

BILERA GELA DAUKAGU

Roke Deuna 25
20808 **Getaria**
Gipuzkoa

T 943 140 143
F 943 140 345
E info@saiazgetaria.com
W www.saiazgetaria.com

Josune Uzin Berasaluze
Fisioterapeuta
EFEO zenbakia: 1.100

eskura
fisioterapia zentroa

697 961 208
Elkano kalea 9, behea

ERABERRI
ERABATEKO BERRIKUNTZAK

680880905
676532067
GETARIA

www.eraberri.com

ASKZU

FAMILIA ETA TALDEENTZAT
ESKAINTZA BEREZIAK

943 83 36 41
www.itsasoa.eus | www.albergue-getaria.com
arazi@arazi.eus

BABEXA
Getariako dendari elkartea

POLITENA

GURE BEREZITASUNAK:

- Astegunetan:
  Eguneko menua
- Jaiegun eta asteburuetan:
  Luxuzko pintxoak, bokatak eta razioak.
- Eramateko eskariak.
- Wi-Fi zerbitzua.

GETARIA

Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113

ENGLISH NOW

HELDUENTZAKO OINARRIZKO **INGELESA**
GETARIAKO ESKUALTXETAN

Interesatuta bazaude,
deitu **617 847 150** telefonora

www.artzape.eus

egin bazkide

Txeruko postontzian // info@artzape.eus

Izen-abizenak:	
Helbidea-Herria:	
Telefonoa:	
Helbide elektronikoa:	
Kontu zenbakia:	
Banketxea:	

Urtean 25€ - Getariatik kanpo bidaltzea 30€

SIZ
Servicios Informáticos Zarautz

Ekipo informatikoen salmenta

Mantenua

Informatika akademia

Webguneen diseinua

Urdaneta 2, behea · 20800 Zarautz
Tel. 943 894 014 · fax 943 133 410
www.zarautz.com · siz@zarautz.com